

## Irati Goikoetxea idazleak bere lehen liburua auzkeztu du



Irati Goikoetxea idazle beasaindarra bere liburuaren aurkezpenen.

J. U.

BEASAIN

20 noviembre 201400:11

Orain dela zortzi urte txoko honetan Irati Goikoetxeak elkarrizkata baten bidez adierazi zuen liburu bat idaztea zela «bere ametsetako bat, eta niri ametsak egia bihurtzea gustatzen zait, eta egia bihur daitezen borroka eta lana egitea. Amets ugari egiten ditud, ausartu egiten naiz amets egitera, badakidalako amets horietarako bidea luzea izan daitekeen arren, nik ibili egin nahi dudala. Nire ametsengatik borroka egiteko hezi ninduten, horregatik jaikitzen naiz goizetan amets berriekin. Liburua noizko? Ea aurten ikasketak buka-tzen ditudanean proiektu berriren bati heltzen diodan.

Aste honetan, Irati Goikoetxeak bere lehen liburua argitaratu du eta Erein argitaletxearekin egin zuen jendaurreko lehenengo aurkezpena Donostian.

Helduentzako 14 ipuin biltzen ditu 'Andraizea' liburuak.

Zoroaldi txikiz osaturiko istorioak dira, bizitza edertzen duten zoroaldi txiki eta beharrezkoz beteak. Pentsamenduaz haragoko jolasetan ibili da Irati. Bere hitzetan «izugarri gozatu du idazten». Bestalde, liburuko kapitulu gehienek emakume izena daramate. «Emakumea zoroagoa, ausartagoa, koloretsuagoa... dela uste dut, eta ozenago egiten du barre», azaldu zuen. Goikoetxea matematikaria da izatez, eta zenbakiei keinu ugari egindizkie liburuan zehar.